

...elkarrizketa

**Rosa Letamendia**

• ARABAKO ANIMALIA ETA
LANDAREEN BABESERAKO
ELKARTEKOA •

«Txakurren
kontrako jarrera
erasotzailea
areagotu da»

Eusko Jaurilaritzak sei hilabete izango ditu txakur arrisksuen inguruko araudia prestatzeko

■ **Nola ikusten duzu Eusko Legebiltzarrak hartutako erabakia?**

Erabakia beharrezkoa zen, eta gainera premiazkoa zela uste dut. Orain Jaurilaritzak alde guztiekin kontaktuan jarri behar du araudi hori ahalik eta hobekien moldatzeko.

■ **Zuek jabeen gaineko kontrola lehenetsi duzue, ez da hala?**

Bai, baina guk hiru maila bereizten ditugu. Lehenik eta behin, haztegiak kontrolatu behar dira. Une honetan permisibitate izugarria dago gai horretan, eta edozerk balio du dirua lortzeko. Bigarren maila batean txakur hezitzaileak daude. Hezitzailea izateko edonork ez du balio, eta horretan aritu ahal izateko kurtsoren bat izan behar da aldarrikatzen dugu. Azken mailan jabea dago. Argi eta garbi dago txakur mota horiek ezin dituela edonork izan. Horrez gain, gero eta gazte gehiagok erosten dituzte halako animaliak, eta ez dira jostailuak.

■ **Txakurren kontrako erasoak areagotu dira aferaren ostean?**

Bai, txakur jabeek irainak jasotzen dituzte kalean, edozein txakur izanik ere. Zenbait herritarrek duten txakurren kontrako jarrera erasotzailea areagotu egin da egunotan

Ivan Santamaria

GASTEIZ

...esaera

«Itsasoan arbolak aldatu nahi»

...hizpideak

*Petrolio ekoizleen arteko gerrak
merkatua lehertu zueneko*

■ Lurralde Petrolio-Esportatzaileen Erakundeak (LPEE) erregai honen ekoizpena murriztea erabaki zuen atzo Vienan. Neurria joan den astean Amsterdamen izaniko bilkuran adostu zuten erakunde horretako estatuek eta ofizial bihurtu dute Austriako hiriburu gaur bukatuko den gailurrean.

Ekoizpen murrizketaren bidez urte amaierarako petrolioaren prezioa nabarmen igoaraztea espero du LPEEek. Garestitzeak kontsumoari eragingo dio eta faktore honek inflazioaren mamua iratzarri du Mendebaldean.

Atzo onartutakoaren arabera, apirilaren 1etik aurrera 1,7 milioi upel gutxiago ekoiztuko dituzte egunean LPEEko estatuek. Kopuru hori urtebete egongo da indarrean eta horri esker urtea

amaitu aurretik upelaren prezioa 17-19 dolarrekoa izango dela uste dute estatu esportatzaileek. Hori duela hiru hilabete zegoen prezioa bikoiztea litzateke kasik. Izan ere, petrolioaren prezioa etengabe jaitsi da azken hamabi urteotan. Iaz 10 dolar baino gutxiagokoa izan zen eta aurten goranzko joera izan du.

Produktzioa murrizteko erabakia Saudi Arabiak bultzatu du eta Golkoko estatuak Venezuelaren kontra daraman lehia islatzen du. Caracasek biziki pairatu ditu iaz Brasilek jasandako krisiaren ondorioak, eta hitzartutako produktzio kuotak gaintu ditu bere ekonomia suspertzeko asmoz. Venezuelaren merkatu nagusia EEBBetan dago. Eta bertan beste bi estatu ere ari dira saltzen: Mexiko... eta Saudi Arabia.

*Euskal
aktoreen sariak*

■ Euskal aktoreen 6. jaialdia egingo da gaur Donostian. Urteko sariak banatuko dira telebista, antzerkia eta zinema arloetan. Gaurtik aurrera, orde, izen bat dute sariok, Jokulari Sariak. Orain arte oharkabean igaro diren sariok tradizioa sortzen hastea eta denborarekin euskal aktoreen prestijiorako baliagarria izango den erreferentzia izatea lortu nahi du Euskal Aktoreen Batasunak horrekin.

Mugaz gaindi, ezkutukerian

■ Leia elkarteak, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren arteko autobide proiektuaren aurkako elkarteak, bide berri hori erakitzeke Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak aztertu dituzten lau pasabide aukeren berri eman zuen atzo.

Aukera horiek mugaz gaindiko trafiko handiari buruz egindako ikerketan buruz egindako ikerketan biltzen dira, baina agintariek ezkutuan gorde dituzte. Joan den abenduan, ikerketa horren

emaitzak azaldu zituztean, agintari nagusiek azaldu zuten proiektuaren aurkako taldeei emango zitzaiela informazioa. Informazioa eman zieten, bai, baina ez osoa. Leiak beste bide batzuk baliatuta jakin du pasabideak ere aztertuak dituztela.

Jarrera horrek argi erakusten du proiektua dioten baino askoz aurreratua dagoela baina herritarrek helburu urrun bat dela pentsa dezaten interesatzen zaiela.

...pertsoneiak



JORDI RIBERA • Bidasoa eskubaloi taldeak entrenatzaile kataluniarra kontratatu du jaitsiera faseari aurre egiteko. Azken urteotan Cadagua Galdar taldean aritu da.



JOSE IGNACIO PALACIOS • Nafarroako Gobernu-ko kontseilariaren dimisioa eskatuko du Eusko Alkartasunak bihurtik aurrera FMko irrati lizentzien batordean hasiko diren eztabaidetan.



FELIPE RIUS • Zinema japoniarra izeneko lana osatu du idazleak. Kenji Mizoguchi zuzendari japoniarraren inguruan Donostiako *Nosferatu* aldizkariak antolatutako atzera begira-koaren haritik etorri da lan hau.

...datua

3.000 soldatu Borneoko uhartera bidaltzea erabaki du Indonesiako Gobernuak uharterean piztu den gatazka larria baretzen saiatzeko.

...adierazpena

«Garapen eramangarriaren kontua utopia hutsa da egungo kontsumo gizartean»

Antonio Serrano

Unibertsitateko katedraduna

ooo **seiko urrea**

XABIER OLEAGA

Hil egin dute

Nik ere ez dut proba erabakigarriarik, baina ziur nago Ttotton ez duela bere burua hil. Ziur nagoen bezala ETAK hil izan balu behinez gero inkognita hori garbituta egongo litzatekeela. Lekuz kanpo dagoela iruditzen zait, gainera, Ttotton inguru politiko eta familiarri eskatzea ez akusatuzeko proba erabakigarriarik gabe. Agian ez da proba erabakigarriarik egongo Ttotton guardia zibilek hil dutela esateko. Baina ez dago, ez eta ere, proba erabakigarriarik militante gazteak bere burua hil zuela adierazteko.

Bestalde, hemen denok dugu konbikzio gehiago edo gutxiagorekin espekulatzeko eskubidea, baina badaude norbaitzu ez dutenak batere

eskubiderik horretarako. Botere judizialarekin lotutako arduradunetz ari naiz. Eurek bai, ofizio eta etika profesionalaren izenean, errioretsuak izan

beharko lukete, gainerako lurtarrok dugu kontzesiorik gabe. Ez du inolako eskubiderik Ertzaintzak, kasu honetako polizia judizial bezala, ezertariko hipotesiri haizerik emateko. Ez du inolako eskubiderik Cardenal magistratuak ezertariko



hipotesiren aldeko adierazpen publikorik egiteko.

Ordez, Mikel Zabalza, eta bera bezala beste hainbat, Espainiako polizia indarrek hil dutela esan genuenok, eskubide osoa dugu aldarrikatzeke gure ustez nork hil duen Ttotton. Orduan ozenki errepikatu genuelako orbaiztarra Intxaurrondoko leize beltzekoek hil zutela geratu da agerian orain horrela izan zela. Egun

eztarria urratu arte salatzen dugulako hainbat eta hainbatek, frogatuko da bihar nor izan den militantearen hiltzailea. Formalismoak alde batera utzita, nork ez dauka bere barrurako, herri honetan, zizurkildarra Espainiako polizia indarrek hil dutela.

Ttotton horrela hil dutenek euren eskua estaltzeko neurriak hartu dituzte, ez dute ekintza egin errebindikatzeke. Aurrekariak ezagututa, konbikzioak, konbikzio landuak, kanporatzeko eta horren arabera jokatzeko eskubidea erreklamatzeko, Ttotton modu horretan hil dutenen jokoan ez erortzeko. Egoera honetan joko egin nahi duten bakarrak eurak baitira.